

### 1. Zer da soziologia?

Soziologia gizarte bizitzaren azterketa egiten duen diziplina zientifikoa da. Zientzia honek, gizakien talde bizitzan eta talde bizitzatik sortzen diren emaitzetan oinarritzen du bere ikerketa, horretarako metodo zientifikoa erabiliz, ezagutza objektiboa lortzeko. Beraz, azterketa hau egitean, elkarrekintza sozialek sortzen duten guztia ikergai da, zehazki gizartea eta ordena soziala eta gizakia eta aldaketa soziala.

Bere oinarritzko aztergaia gizartea da, eta bere berezko aztergaia gizakia, abere edota produktu sozial gisa ulertuta. Soziologiaren helburua lortzeko, giza elkarrekintza nolakoa den aztertzeko, hainbat abiapuntu hartzen dira kontuan. Gizarteari dagokionez, gizartea nola antolatuta dagoen ikertzen du, nola mantentzen den elkarbizitza soziala modu egonkorrean, zeintzuk dira bere arauak, ezberdintasun sozialak eta ezkutuko interesak, bere erakunde sozialak edota gizarteratze prozesua nolakoa den ;hau da, gizarte ordenua, nola funtzionatzen duen gizarteak eta zer arau nagusitzen diren. Giza taldeari dagokionez ordea, nola eraldatu betiko ordena soziala eta alternatibak nola sortu, aldaketa soziala.

### 2. Aipatu soziologiaren alorrak

Alorrak ez dira eksklusiboak soziologiarentzat, beste diziplina zientifiko batzuek ere erabiltzen dituzte, baina helburuak desberdinak dira , bakoitzak bere ikuspegitik aztertzen ditu, hortaz garrantzia mailak ere ezberdinak dira.

Esaterako, lanaren soziologia, erlijioaren soziologia, hezkuntzaren soziologia, soziologia politikoa, soziologia hiritarra....

Adibidez hezkuntza, ikergai berdina diziplina ezberdinetatik aztertu daiteke, baina soziologiari ez zaio interesatzen nolakoa de errendimendu eskolarra edota nola izan behar duen hezkuntzak, baizik eta hezkuntza eredu jakin baten azpian zer arau sistema dagoen, zein diren bere jatorriak, zein behar sozialek bultzatzen duen sistema hori, zer ondorio dituen, zer talde soziali egiten dion on eta nori ez....

Ekonomia, nola lortu errentabilitatea.

Kirola ordena sozialerako tresna gisa

**BEGI BISTAN EZ DAGOENA AGERIAN JARRIKO DU SOZIOLOGIAK**

### 3. Zein da soziologia eta gizarte langintzaren arteko harremana? Zertan bereizten dira?

Soziologia eta gizarte langintza, harremana daukaten bi zientzia izan arren, bakoitzak bere ikergaia dauka eta ikertzeko prozedura ezberdinak erabiltzen dituzte.

Soziologiak komunitate edo giza talde jakin baten gizarte antolaketa bere osotasunean aztertzea eta ulertzea du helburu eta gizarte langintzak berriz, gizarte antolaketaren giza-beharrizan zehatzak atenditzera zuzendua dauka bere teoria eta jardute profesionala.

Ikertzeko prozedurari dagokionez, soziologiak errealitate sozialaren diagnostia egiten du, datu frogagarrien bidez antolamendu sozialaren arauak, pautak, gabeziak, onurak, gatazkak, interesak eta dauden alternatibak ikertuz. Berriz, gizarte langintzak gizarte beharrizanetan esku-hartze prebentibo edota berehalakoa egiten du , beharrizan bio-psiko-sozialen aurrean, bai gizabanako, bai kolektibo batekin, bai komunitate batekin. Esku hartze hauen eredu dira autonomia fisiko mentala bermatu eta elkarbizitza

soziala bultzatzea, guztion ongizatean oinarritzea, lotura sozialak zaintzea edo eraikitzea eta ekimen sozialak bultzatzea.

4.Zergatik da soziologia zientzia? Zerrendatu ikerketa prozesuaren pausuak eta definitu.

Soziologia diziplina zientifikoa da, metodo zientifikoaren bidez hainbat fenomenoren inguruko ezagutza objektiboa lortzen duelako.

Bere ikerketa metodoen oinarria beste zientzia batzuen parekoa da, ulermena arrazional objektiboa duelako.

Soziologia zientzia dela kontsideratu daiteke hurrengo baldintzak betetzen dituelako:Empirismoa ,teoria, irekitasuna, neutraltasun etikoa eta kritika.

Ikerlanarekin hastek hainbat galdera soziologiko erabiltzen dira abiapuntu gisa, hauek gaiaren inguruan hausnartzen laguntzen dute, gaia zehazten.

1.Galdera factualak (Nolakoa da egoera, zer gertatu da?) Adibidez: Emakume langileen kopuru handiek ez dute soldata nahikorik bizi kalitate duin bat bermatzeko.

2.Galdera konparatzaileak (konparaketa egin)Leku eta garai denetan? Pertsona guztiei? Adb: Genero indarkeria bertoko emakumeek jasaten duten zapalkuntza bat da edota atzerritarrek ere?

3. Galdera progresiboak (denboran zehar) noiztik ematen da fenomeno hori?Adb: Generoaren arabera soldata bereizkeriaren aldetik zein da bere joera azken urteetan?

4.Galdera teorikoak, zergatik gertatzen da? Zer dago horren azpian? Adb: Zein interes ekonomiko, politiko, sozial edo kultural egon daitezke gertaera horren azpitik?

Behin galdera hauen inguruan hausnartu ondoren, ikerketa prozesua aurrera eramateko, hainbat pausu jarraitu behar dira.

1.Ikergaiaren definizioa: Arazoa edo aztergaia zein den definitu behar da. Ikertzea merezi duen eta metodo zientifiko bidez azter daitekeen arazo bat izan behar da, zehatza, datu frogagarrien bidez ikertu daitekeena.

2. Ikergaiari buruzko literatura azterketa: Behin ikergaia zehaztuta, ikergaiari buruz idatzitakoa aztertu eta ezagutu behar dugu.Orain arte zer dago idatzita gaiaren inguruan? Ikerketaren marko teorikoa, informazio iturri ugari bilatu eta forma ezberdinetakoak, interesgarria izan daiteke ere ikustea ordura arte gai horren inguruan eman diren azterketak.

3.Hipotesien formulazioa: Ikergai den fenomenoari buruz ikerlariaren ikuspuntua erakusten duten baieztapen profesionalak dira. Garrantzitsua da ondo formulatzea, ikerketaren diseinuan eragina baitute, ardatz nagusia direlarik. Zuzenak edo okerrak izan daitezke eta ikerketaren amaieran erabakitzen da mantendu edota atzera bota.

Deskriptiboak:Ezaugarriak aztertu, egoeraren deskribapena egiteko. (Gazteen kontratu partzialak igo dira azken 10 urteetan.)

Korrelazionalak: Bi faktoreren konparaketa . (Ikasketa profesionalak dituzten gazteek kontratu hobek dituzte gainontzekoek baino.)

Kausalak: Fenomeno bat zergatik eman den aztertze. (Kontrato mota eta soldata mota langilearen klase sozialaren menpe dago baita adinaren menpe ere.)

4.Ikerketaren diseinua: Ikerketaren hipotesiak onartzeko edo ezeztatze egin behar diren azterketak, azterketa horiek egiteko jarraitu beharreko pausuak, eta behin informazioa lortuta erabiliko diren prozedura analitikoak edo estadistikoak zehazten ditu.

Metodoaren aukeraketa gai eta ikerlanaren helburuaren arabera da:

Kuantitatiboa: Estadistikan eta zenba daitezkeen datuetan oinarritzen da, orokorrean gizartea era deskriptiboan azaltzeko. (Inkesta)

Kualitatiboa: Gizartea era sakonean aztertze, eztabaida edota elkarrizketak.

5.Datuen bilketa eta azterketa: Datuak jaso eta informazioa osatu eta sailkatu alde aurretik ezarritako irizpideen bidez. Landa lana egiten dela esan, gu bagabiltza datu bilketa egiten.

Behin datuak sailkatuta irizpideen arabera, ondorioak atera daitezke:

Egiaztatu edo baztertu hasierako hipotesiak?

Zer gehitu gure ezagutzari ikerketak?

Zein galdera eta iradokizun atera dira ikerketa honetatik geroagoko beste batera?

6.Txostenaren idazketa, konklusioak: Aurreko atal guztiak bildu era argi batean, informazio iturriak eta landa lanaren nondik norakoak azalduz, kontuan izanik txostena norentzat den. Laburpena marko teorikoarena , proposamenak eta gabeziak.

5.Zer da ingurune soziala?Elkarrekintzak noiz sortu ingurune soziala eta noiz ez?

Zerrendatu 5 gizarte motak.

Bi pertsona elkartzen direnean ingurune sozial bat eratzen dela esan daiteke, hirugarren bat sartzen bada aldatzen delako.

Baina bi pertsonen arteko elkarrekintza guztiak ez dira gizarte bezala kontsideratzen, gizarte bezala kontsidera daiteke, alde aurretik finkatutako arau batzuk daudenean.

Adibidez autobusean edo kalean pertsona ezezagun batek beste batekin ez du elkarrekintza bat sortzen, baina bai ordea ama eta umearena edota psikologo eta pazientearena.

Elkarrekintza hori leku pribatu zein publikoan ematen da eta arauak beharrezkoak dira. Hau da, rola edo botere harremanak gertatzean, aurreiritzi edo arau horiek gertatzen ez badira, ez dago elkarrekintzarik.

Bost gizarte mota bereiztu daitezke:

-Zibilizazio oso bat: Gizarte mota bat da eta maila abstraktuen aldetik soziologiak hura azter dezake. Hainbat zibilizazio mota daude eta euren arteko desberdintasunak ugariak dira. (kultura, siñeskera...)

-Herrialde konkretu bat: Zibilizazioaren arauak konpartitu ditzakete baina bakoitzak bere ingurune soziala sortu. Herrialde bakoitzak baditu berezko berezitasunak, baina badaude herrialde desberdinen artean ere komunean dituzten berezitasunak.

-Herrialde baten barruan dagoen egitura edo erakundea: Herrialde baten barruan badaude klase sozial desberdinak eta hauek bakoitzak bere arauak dituzte. (Esparru ekonomikoa, politikoa, soziala eta kulturala.) Familia

-Talde sozialak: Talde sozial bakoitzak bere arauak dauzka aurretik ezarritako irizpideen arabera beste errealitate txiki batzuk sortzen dira eta hauek dira talde sozialak, gizarte mota txiki gisa ulertuta.

-Bi pertsonen arteko harremanak: Bi pertsona elkartzean ingurune sozial bat sortzen dela esan dezakegu, hirugarren pertsona bat sartuz gero aldatu egin daitekeelako. Gizartea dela esan dezakegu, ondorengo baldintza betetzen denean: bi pertsonen arteko elkarrekintzak alde aurretik finkatutako arau batzuei jarraitzen dienean.

Elkarrekintza hori leku publiko zein pribatuan eman daiteke eta arauak beharrezkoak dira. Hau da, rola edo botere harremanak gertatzen direnean, aurreiritzi edo arau horiek ematen ez badira ez da elkarrekintza gertatzen.

Bere talde sozialaren barruan errealitate desberdin bat erakutsi dezake.

6. Zer da arazo soziala? Eta soziologikoa? Definitu eta eman adibideak

Arazo soziala: Gizarte ordenuaren kontra, ezarritako ordenaren aurka doana. Administrazio eta agintarien eskutik ikustea zergatik doazen gaizki gauza batzuk.

Adb: Delinkuentzia /Iraultza/Homosexualitatea

Arazo soziologikoa: Gizarte baten arau sistema osotasunean ikertzea da, soziologikoa eta ofiziala ez ezik, egoera zehatz batean parte hartzen duten talde sozial ezberdinen ikuspuntuetatik ere.

Hau da, jakitea nola dabilen ingurune sozial bat, zeintzuk diren bere arauak, nolako baliabidez irauten duten harreman sozialek hautsi gabe, gizarte ordenua mantendu eta kiden loturak kontserbatu.... Legea/Gobernua/Ezkontza

1. Nola sortu zen soziologia? Azaldu bi hito historikoak.

Soziologiaren jaiotza ulertzeko ezinbestekoa da deskribatzen bere testuinguru historikoa eta bertan zein aldaketa sozialak ematen diren, hauek soziologia eta bere mundua interpretatzeko ikuskera berria eragiten baitute.

Aldaketa hauen barruan, bi gertaera nagusi azpimarratu daitezke gizarte antolamendu berri bat eragiten dutenak:

Industria Iraultza, gizakien bizi baldintza materiala aldatzen du, oinarrizko premiak asetetzeko erak guztiz aldatu, lurra landatzetik, diruagatik lan egitera pasatu.

Frantziako iraultza, azken hamar mendeetako pentsamendua ulertzeko era aldatu zuena.

Soziologiaren jaiotza, mendebaldeko gizarte tradizionalaren krisiarekin eman zen. Bi iraultza hauek aldaketa sozial sakonak ekarri zituzten, aurreko mendeetan ezarritako ordena soziala desagerraraztea eragiten dutenak.

Mundu berri honetara moldatzeko eta ulertzeko, ofizialki eta gehiengoak onetsia zeukaten kultura jada ez da baliagarria, eta zalantzan jartzen da.

Egoera honetan, premiazkoa da tradizionalak ez diren ideia alternatiboak bilatzea mundu gatazkatsu eta kaotikoari erantzun eta gizartea berreraikitzeke. Orduetik aurrera ideia aniztasuna nagusitzen da eta pentsamendu zientifikoa, gizakia protagonista bezala, demokrazia vs absolutismoa bihurtzen dira abiapuntu mundu berria eraikitzeke.

Bi iraultza hauek agerian jartzen dute gizarte tradizionalak ezin dituela biztanleriaren beharrak asetu eta mundu moderno eta industrialak hobeto antolatzeke, mota ezberdinetako eztabaidak sortzen dira esparru politiko, zientifiko eta sozialean. Pentsamendu kritikoa eta ideia aniztasuna garatu ziren, honek soziologian pentsamendu alternatiboak ekartzea eragin zuen, pentsamendu bakarrarekin amaituz. Hausnartzeko eta mundu berria antolatzeke sortzen da soziologia, dogmatismoarekin hautsiz.

Faktore oztopatzaileak:

Diktadura batean edo kultur aniztasuna onartzen ez den gizarte baten, soziologiak ez du aukerarik izango, egoera horretan, kultur ofizialari buruzko hausnarketan, gizarte ordenua alda daitekeelako.

Faktore erreztatzaileak:

Aldaketa sozialak ematen direnean, soziologia garatzea bultzatuko du.

2. Azaldu Comteren ekarpen nagusia eta bere etapak.

Soziologia agertu aurretik filosofo eta teologoek haien hausnarketak gizarteak nolakoa izan behar zuen imajinatzeraz edota deskribatzeraz bideratzen zituzten, hau da, mundu ideal batera.

Egoera honen aurrean, Comte-ek hausnartzeko forma berri bat definitzeko asmoz, soziologia kontzeptua asmatu zuen, gizartea eta mundua nolakoa den, nola funtzionatzen duen azaltzea eta ulertzea du helburu, ez nola izan behar zuen, idealismoak alde batera utziz.

Hau da, ez du esaten gizarteak nolakoa izan behar duen, horren ordez errealitate eta gizartearen inguruan hausnarketa egin eta dauden gabeziak edota bertan gertatzen diren fenomenoak metodo zientifikoa erabiliz aztertzen ditu.

Gizarte eta giza gertaerak gauzak balira bezala ikertzea proposatzen zuen Comtek. Fisikak eta matematikak egiten zuten bezala soziologiari diziplina zientifikoa aplikatu behar zaio .

Ikuspegi eboluzionistak azaltzen du gizarte pentsamenduaren garapena:

Gizartearen bilakaera modu lineal batean ematen da, non mundua interpretatzeko era simple batetik beste konplexuagoetara garatzen den eta ez dago kontsideratua atzera bueltarik.

Bere ikerketen arabera 3 etapatan bilakatzen da mendebaldeko gizartearen garapena eta honekin batera gizarte antolaendu mota, gizarte bizitzaren etapekin kointziditzen du, gizarte pentsamenduaren bilakaerak.

1.ETAPA TELEOLOGIKOA: Europako Erdi Arora arte eman zen eta gizakiaren haurtzaroarekin konparatu daiteke. Gizadiaren pentsamendua gizakion haurtzaroarekin konparatzen zuten. Pentsamendu magikoa nagusitzen da, guzak magikoak dira denentzat. Horrek pentsamendu bakarra nagusitzea eragiten du, dena jainkoaren borondate eta erabakien menpe dago, izaki pasiboak gara eta mundua eta gizartea jainkoaren menpe daude, ikuspegi teleologikoa, ezin dugu ezer gin, bakoitzaren etorkizuna Jainko naturaren esku dago. Hortaz ezin da aldaketa sozialik eman, ez dago iraultzarako lekurik.

2. ETAPA METAFISIKOA: Errenazimendutik aurrera eman zen eta gizakiaren gaztaroarekin konparatu daiteke. Gizadiaren pentsamendua gizakiaren gaztaroarekin konparatzen da. Gauzak aldatzeko motibazioa dago, baina idealetan soilik geratzen da. Mundua, gizartea ez da naturaz gaindiko edo jainkozko kontu bat, ideia abstraktuen emaitza baizik. Gizakia bere historiaren protagonista-eragilea da , bizitzat ez dago entitate abstraktu batzuen esku, gizakiek gauzak eragiten dituzte, hortaz, gizakia errealitatearen eragilea da eta errealitatea alda daiteke.

3.ETAPA ZIENTIFIKOA: XVII-XVIII. mendetik aurrera eman zen, garai hau helduaroarekin konpara daiteke. Gizadiaren pentsamendua gizakiaren helduaroarekin konparatzen da. Gauzak aldatzeko nahia dago, eta hau aurrera eramaten da, baina bakarrik baliagarriak, frogagarriak diren teoriak. Aurreko etapetan ematen diren ideiak abstraktuen sineskortasuna ezin da frogatu edo egiaztatu. Errealitate bat ulertzeko datu frogagarriak behar dira, eta komunitate zientifikoaren barruan eztabaidatzen da ea frogagarriak diren, eta ez da oinarritzen pentsamendua abstrakzio edo ideia subjektiboetan.

Hutsunea beste zibilizazio batzuen garapena ez dela lineala eta ez duela zerran izan, atzerako bilakaera ere gerta daiteke mendebaldeko zibilizazioan edozein unetan.

Hauek izan ziren Comteren ekarpenak:

1. Ikuskera positibista batetik (ikuskerak zientifikoa) gizartea eta gertatzen diren sozialak aztertzea. Lehen aldiz modu objektiboan aztertzen dira, datu frogagarrietan oinarrituz, interpretazio subjektiboak baztertu.

2. Gizarte bilakaera etapetan aztertzearen onorioz, identifikatzea zeintzuk izan diren mundua interpretatzeko ikuskera nagusiak eta bakoitzak nola eragin gizartekideeen bizimoduan eta agintarien erabaketan.

3. Ikuspegi soziologiko nagusiak: Nola egituratua dago gizarte? Nola eraten dira gizarte arauak?

1. Ikuspegi funtzionalista: Gizartearen azterketa zabalak.

Ikuspegi honetan gizartea talde sare bat balitzan begiratzen da, hau da, kideen gehiengoak partekatzen duten arau eta balore sail baten arabera era guztiz ordenatuean parte hartzen duen talde sare bat bezala alegia. Gizartea sistema iraunkor bat bezala biltzen da, orekarantzko joerarekin, hau da, sistema eragile armoniatu eta orekatu bati eusteko joera dauka. Horrela, portera arauak premiei erantzuteko sortzen dira eta galdu premiak aldatzean.

Ez du kontuan hartzen erakundearen eragina, gizakien ekintza libreak baldintzatan dituelarik. Alde batera uzten ditu sexu, klase edota arraza diskriminazioa, eta arauak ez dira beti denon onurarako sortzen, interes ezkutuak daude.

Ikuspegi kontserbadorea: Modu sakonean aztertzen du gizartearen funtzionamendua baina ez du azaltzen arauen azpian interes ezkutuak daudela.

2. Gatazkaren ikuspegia:

Funtzionalistek gizartearen egoera normala oreka dela diote, Gatazkaren teorikoek ordea, pentsatzen dute, gizartea etengabeko gatazkan aurkitzen dela talde eta klaseen artean. Gizartea botere eta irabazien aldeko etengabeko borroka prozesu bat bezala ikusten da, bertan maila askotako pertsonak lehiakide gisa azaltzen direlarik.

Klaseen indarrak edo talde dominatzaileak gizarteari baturik eusten diote. Funtzionalistek lotura bezala ikusten dituzten balore partekatuek, ez dute benetako kontsentsurik osatzen, kontsentua artifiziala delakom klase dominatzaileak bere arau eta baloreak gainontzeko pertsinen gainean inposatzen dituztelako.

Norentzat da onuragarria?

oreka harmoniatuak batzuk saritu eta besteak zigortzen ditu, gizartearen oreka armoniatuaz hitz egitean talde dominatzaileek esplotatzen dituzten taldeak isilarazten dituzte.

Gizarte ordenako arau guztiak ez dira esplotatzeko, batzuk guztion onurarako sortu dira. Ikuspegi mikrosoziologikoa ez du kontuan hartzen.

### 3. Elkarrekintza ikuspegia:

Mikrosoziologian erabiltzen den ikuspegia da gehienbat. Pertsonak produktu sozialak izateaz gain, helburudun zerbaiten sortzaileak dira. Gizakiek gauzekiko edo besteekiko duten harremana beraien zentzu eta esanahietan oinarritzen da. Esanahi hori gizarte elkarrekintzatik sortzen da eta horri egiten zaion interpretazioak alda dezake.

Talde sozial bakoitzak nola interpretatu mundua?

Giza talde bakoitzak gizartean dauden arauak nola interpretatzen dituen.  
Batzuentzat onuragarria dena besteentzat kaltegarria izan daiteke.

Gatazka eta interesa ezin uka daitezke. Ez du azaltzen arauekin lotuak dauden taldeen interes ezkutuak.

Makrosoziologia kontuan ez.

Nola jokatu bullyngari dagokionez talde sozial bakoitzak ?

Nori interesatu bullynga mantentzea ? Eta desagerraraztea?

Zergatik bullynga?

Funtzionalistek ezin dute alde batera utzi klase, arraza, sexu edota nazio esplotazioaren errealitatea eta ezin dute defendatu gizartearen arauak guztion onurarako sortzen direnik. Gatazkaren teorikoek ezin dute argudiatu aberats eta pobreen interesak beti kontrakoak direnik, gizarte talde guztiek euren elkarbizitzari eta biziraupenari aurre egitkeo gutxieneko arau batzuk partekatzen dituztelako. Ikuspegi biak kontuan hartu behar dra gizartearen ulerpen osorako.

1. Gizakia, naturaren ala gizartearen produktua da?

Gizakia, ikuspegi soziologikoaren arabera gizartearen produktua da, artifiziala eta ez materiala. Gizakiaren garapen prozesua ez da prozesu naturala edo indibiduala, beste gizakien arauetara moldatuz egin behar da, bestela gizakia ez delako bere osotasunean garatzen, beste pertsonetikiko harremanak sortzen du gizakiaren benetako gaitasuna, harremanetan egon behar dugu modu egonkor batean.

Beste gizakiengandik isolatuta jaiotzen eta garatzen badu, hots, ez badago sozializaziorik talde baten barruan, ezin da "pertsona" bihurtu animalia bezalako jokaera eta izaera baino ez du izango, Genie eta ume basatiaren kasuan ikusi daitekeen bezala. Taldean, hizkuntza bat ikasten da eta, hizkuntza horren bidez, pentsatzen; gizartean mamitzen dira emozio, sentimendu, ohiturak, pentsamoldeak, baita kreatibitatea eta arrazonamendua erabiltzeko gaitasunak ere.

Ezaugarri genetiko batzuekin jaiota ere, taldearen barruan bihurtuko gara gizaki. Naturak bere garrantzia dauka, baina ez da faktore guztiz baldintzatzailea, gizartearen da gizaki egiten gaituena.



Sozializazio prozesu honek gizakia animaliangandik bereizten du, animalien bizitza sen eta instintuetan oinarritzen da, gizakiok ordea ikasi egiten dugu, instinto hutsuneak betetzeko kultura bat sortuz, gauzak nola egin eta momentu bakoitzean nola jokatu jakitzeko, beharrak asetzeko erantzun posibleen artean balorazio kontzientzia egin eta bat hautatzen da, kulturak instintua ordezkatzeko du. Gure gizartearen arauak barneratuz, pertsonalitatea eraikiz goaz.

2. Zer da gizarteratze prozesua?

Durkheimen arabera, hezkuntzaren sinonimoa da sozializazioa, prozesu hezitzaile orokor bat non gizabanakoa modu formal eta informal batean eta bizitza osoan zehar etengabeko ikaste-irakaste prozesu batean murgildurik dagoen. Komunitateko gizakien elkarrekintzen barruan, egoera fisiko intelektual eta moral batzuk barneratuz.

Sozializazioa gauden gizartearengandik jasotzen ditugun ezaugarrien ikasketa prozesua da, jaiotzatik ematen dena. Ikasketa prozesu honen bidez, gizaki bakoitzari gizarteak ezarritako ezaugarriak edo eskakizunak betetzea lortzen dugu. Gizakiez inguraturik eta euren harremanetan egotearen ondorioz, izaki sozialak bihurtuko gara. Gizartetik kanpo garatzen bada norbati, ez da gizaki bilakatuko, animalien izaera eta jokabidea izango du. Ikasketa prozesu hau gizakien arteko harreman sendo eta iraunkor edo egonkorren bidez ematen da. Hortaz, gizarteratze prozesuaren bidez, pertsona batek bizi den lekuko arauak, sinesmenak eta ohiturak barneratzen ditu, nortasun bat garatuz.

Rolak ikasi eta barneratzen ditugun heinean, gizartea eraikitzen dugu gure baitan, baina nola eraikitzen da gizakiaren identitate soziala? zergatik ikasten ditugu rola? zerk bultzaten gaitu taldeak ezarritako arauetara moldatzera? Gure izaera naturalaren gainetik, kulturala nagusitzen da.

3. Azaldu mekanismo sozializatzaileak eta adibideak jarri:

4. Azaldu sozializazio etapak:

3 sozializazio etapa bereizten dira:

1. Mailako sozializazioa: Haurtzaroan ematen da, jaiotzatik nerabezarora arte. Egile nagusiak gurasoak eta familia direlarik. Etapa honen ezaugarriak ondorengoak dira: Lkasiak guztia inkontzienteki barneratzen da. Bereganatutakoak zama afektiboarekin lotura handia dauka eta bizitza osoan zehar sendo mantentzen da, aldagaitza. Rolak ezaugarri subjektiboak lotuak daude, pertsonalitatearen ezaugarriak garatzen ditugularik, identitatea, nortasuna eraikiz. Hone adibide izan daitezke:

Primogenittoa izatea, aitaren begikoa izatea, kristaua izatea, gutarikoa izatea....Nortasuna eraikiz, rol partikularrak.

2.mailako sozializazioa: Nerabezarotik lanean hasi arte eta egile nagusiak dira, eskola, kidesun taldeak, komunikabideak eta internet.Honako ezaugarriak ditu etapak: Ikasten dugun guztia heldutasunerako prestakuntzarekin lotuta dago. Kidesun talde bakoitzak gizartearen mikrogizarte ezberdina errepresentatzen du. Eduki objektiboagoak ikasten dira, paper unibertsalak, inpersonalagoak .Gizarte kide guztientzat eskubide eta betebeharrak berdinak. Ikasle izatea, hiritar bezala jokatzeko ikasi, lanbide baten errepresentatzaile izaten ikasi.... Rol unibertsalistak

3.mailako sozializazioa edo bergizarteratzea:Ez da beti ematen , gertatzekotan helduaroan ematen da. Orain arteko arau sistema alde batera utzi eta beste bat ezkurutzen da,bat batekoa. Egile nagusiak dira, talde soziokultural berriak, erakunde itxiak. Aldaketa bat ematen da, orain arteko jarraitutako arau sistema alde batera utzi eta beste balio sistema bat beragantzen da. Dibortzioa, kartzelara joatea, sekta....

1.mailako sozializazioan ez dago identifikazio arazorik, gehiengoak inposatutakoa barneratzen da.

2.mailako sozializazioan ordea, zein gizarte esparrutan sartu erabakitzen dugu eta bertako arauak barneratu.

5.Zer da kultura? Azaldu bere 2 dimentsioak eta ez materialaren barruan dauden 5 motak azaldu ere bai.

Gizartea birproduzitzen da kultura(ohitura, tradizio, lege,balio, erakunde) transmititzen duten hezkuntza praktiken bitartez, bere iraupena bermatuko duten gizakiak eratzeko asmoarekin.

Kultura ezagutza, sinesteak, artea, moralak, legeak , ohiturak eta gizakiak gizarteko kide gisa bereganaturiko beste hainbat gaitasun biltzen dituen konplexu bat da, hau da gizarte bateko kideek sozialki ikasi eta partekatzen duten guztia da (Taylor).Gizabanakoak gizarteko oinordekotzaren gisa ikusten dute kultura, baina aldi berean sar ditzake hurrengo belaunaldien oinordekotzaren atala eta berrikuntak ere. Sarri gizarte eta kultura nahasten diren bi termino dira. Kultura arau eta balio sistema bat da. Gizartea berriz, giza talde bat, erlatiboki independentea, iraunkorra eta toki batean lekutua, kultura bat partekatzen duena.

Gizartea pertsonen instituzio bat da, bere harremandun elkargoekin. Kultura, pertsonak daukaten arau eta balioen sistema antolatua bat da.

Kulturak bi dimentsio dauzka:

Kultura materiala: Premia bat asetzeko sortzen diren objektu manufakturatuetan oinarritzen da .

Kultura ez materiala: Jendeak erabiltzen dituen hitzetan, dauzkan ideia usadio eta sinesteetan eta jarraitzen duen ohituretan oinarritzen da. Honen barruan 5 osagai daude.

#### 1.Ohitura:

Elkarte bizitza arazoz josia dago eta egoera hauei aurpegia emateko, soluzioak, portaerak hautatzen ditugu. Gizarte ezberdinek era askotako portaera bideragarriak aurkitu dituzte eta horregatik esan dezakegu herrien arteko ohiturak ezberdinak direla.Gizarte talde batek, portaera bat, premia berezi bat asetzeko ohizko era onartzean eta horren errepikapenaren ondorioz sortzen dira ohiturak. Taldekideen artean errepikatzen den ohizko portaera, normala eta betikoa. Normalean ondorengo belaunaldiei transmititzen zaizkie.

#### Gabonak ospatzea

Heriko jaiak

Hauek ongia eta gaizkiarekin lotzen hasten bagara, tradizio bilakatzen dira.

2.Tradizioa: Behar bat asetzeko modu jakin batean jokatzera behartzen gaituzten ideiak. Hauek barneratua ditugu eta sarritan behartuak senti gaitzke hauek betetzera. Sakratuak izan daitezke bai lege bai erlijio aldetik. Burua balioetsie ta betikotu eta hauek zalantzan jartzea, lotsagabekeria edota barkaezina lirateke.

Gazteei sarritan tradizioak irakasten zaizkie, asimilatzeraino, hau da, gauza bat ikasi eta onartu, era inkontziente batean gure erantzunen parte bihurtzune direlarik.

Osorik asimilatzean, tradizioek portaerak kontrolatzen dituzte, eta hau oso sendoa bada eta gizartean finkatua badago, lege bihurtzen da, zigorra bete ez gero.

#### Burka erabiltzea

Janari konkretu batzuk ez jatea, islam.

Poteak hartzea

3.Legea: Gizartean oso finkatuta eta sendoak diren tradizioak dira. Tradizio hori betetzen ez bada, zigor bat jasoko dugu.Hainbat eztabaida egon dira legeen zilegitasunaren inguruan eta soziologiari dagokionez, 2 ikuspuntu nagusitu dira: Funtzionalist, legearen azterketa tradizioen adierazpen gisa ikusten duena eta gatatzaren ikuspegia, legea boteretsuen tresna gisa ikuste duena, botererik ez daukatenak kontrolatzeko erabilia. Biak dira zuzenak, gizarte konplexuetan legeek tradizioak ezartzen dituztelako eta aldi berean badaude zenbait pertsona besteek baino pribilejio gehiago dituztenak.

#### Konstituzioa

Eskolara joaeta

4Balioak: Tradizioak ea ekintza onak edo txarrak diren argitzen dituzten ideiak dira.Esperientziak garrantzitsuak diren edo ez argitzeko erabiltzen diren ideiak dira. Gizarte baten zenbait balio onartuak diren bitartean, beste batzuentzat gaizki ikusiak egon daitezke,

beraz, esan genezake kulturaren arabera aldatzen direla. Bakoitzaren eguneroko bizitza balio hauen arabera da, talde sozial baten etika, beraientzat zer den garrantzitsua bizitzan.

Bakea

Bortizkeria

5. Erakundeak eta instituzioak: Gizarte premia bati aurre egiteko arauen multzoa da, non ohiturak, tradizioak, legeak, baloreak, berezko rol-sozialak, erritualak, sinboloak eta talde sozialak aurki daitezkeen. Gizarte harremanen sistema antolatua da, talde sozial ezberdinak, bakoitza bere eskubide eta betebeharrekin.

Gizarte konplexuetan oinarritutako instituzio batzuk daude: Eliza, Hezkuntza, Familia, Estatu, Erakunde Ekonomikoak eta ezkontza. Instituzio bakoitzak premia bat asetu.

Familia: Ondorengoak bermatu.

Erlijioa: Kezkei erantzunak eman, bizitzaren zentzua ulertzen lagungu

Ekonomia: Baliabideen kudeaketa biziraupenerako.

Hezkuntza: Kulturaren transmisioa biziraupenerako.

6. Zer da kontrakultura? Eta azpikultura?

Gizarte guztietan kultura orokorra edo dominatzailea dago, gehiengoak konpartitzen duena, kultura hegemonikoa.

Baina gizarte moderno guztiek dauzkate kultura dominatzaile hori edo kultura dominatzaile horren parte bat partekatzen ez duten pertsona taldeak.

Azpikulturak, kultura alternatiboak dira, hegemonikoaren aurka ez daudenak, etorkinak edota tribu urbanoak.

Ordea, kultura nagusiaren arauak apurtu nahi badira, kontrakultura izango da, ezarritako balioen aurka. Hippy, skinhead, punky, ultrak

Gizartearen kultura orokorrarekin elkarlotzen direnak eta hala ere bertatik bereizten direnak, azpikulturak dira. Barne hartzen dituzte, azpikultura okupazionalak, erlijiosoak, nazionalak, lurraldekoak, gizarteko klase, adin eta sexu eta beste hainbat eratakoak. Hauek garrantzitsuak dira gizarte konplexuek ez dutelako kultura bakarra eta uniformeak edukitzen. (Ijito, katoliko, protestante...) Balio eta portaera sistema bat gizartearen atal bat osatzen duten taldeen artean, baina kultura arau berezi batzuk dituenak.

Kultura dominatzailearekin kontrajarrera aktiboan dauden azpikulturei kontrakultura deritze. Hauek gizarte aldaketa asko eskatzen dituzte. Kultura ofizialaren aurka doan azpikultura, orden sozialaren aurka.

McDonalizazioa

1. Azalpena, definizioa

Lanaren antolamendu eredu burokratikoan oinarritzen den prozesua da, bizimodua aldatzen duena, denborarekin gizartearen arlo ezberdinetara zabaldu dena. Soziologoak gizarteko McDonalizazioaren inguruan hitz egiten hasi dira, prozesu bat zein janari azkarraren industriaren printzipioak ezartzen hasi diren gizarte langintzan eta esparru gehiagotan. Muturreko arrazionalizazioa zabaldu beste esparru batzuetara eta alde batera utzi emozioak, alde sentimentala...

Komunitate eta senideen artean edo gainean eraikitako mundu batetik; enpresa handien, burokrasia eta organizazio formalen gainean biratzen duen funtzionamendura igaro gara. Gizarte talde txikiak talde eraginkor eta urrunagoei ari dira bidea ematen. Era berean, pertsonen erlazionatzeko eta komunikatzeko erak ere aldatzen ari dira. Hain efikaza da lan negozio hori mundu osoan zehar zabaltzen dela eta hortik beste esparru batzuetara eta horrek ondorio arriskutsuak dakartza.

## 2. McDonalizazioaren ezaugarriak:

George Ritzen arabera, McDonalizazioak, antolatzeko oinarritzko lau printzipio barnebiltzen ditu:

1. Eraginkortasuna, efizientzia: la mundu guztiaren iritziz, bizkor egin daitekeen edozer, arrazoi horregatik soilik, eraginkorragoa da. Ahalik eta lasterren, merkeen eta baliabide gutxienekin, irabazi handiena lortu. Adb, bezeroak bere zaborra batu, kate honetan eraginkortasuna garrantzitsua da.

2. Kalkulatzeko gaitasuna: Gaur egun diseinua eta produkzioa kantitatean ematen da, eta kalkulatu dagoen plan batean sartzen da. Hau da gure ingurua eta gure esperientzia oro, inoiz baino planeatuago daude orain. Adb, jatetxean dena milimetrora dago kalkulatu, plateraren tamaina, hanburgesen tamaina, gantz kopurua... eta kalkulabilitate hori guztiz islatua dago gaur egun gure bizitzetan, autopista batetik bidaiatzetik gure etxeko sofan ikusteraino, gaur egun dena dago inoiz baino planifikatuagoa eta zehaztuagoa. Dena dago alde aurretik kalkulatu kualitatibo eta kuantitatiboki, zer pisu, zer tamaina, zenbat denbora produzitzeko...

3. Uniformetasun eta aurrikusgarritasuna/iragarritasuna: Aurreikusgarritasuna sistema oso arrazional baten emaitza da, ekintza bakoitza zehaztua duena eta ezer ez duena uzten zoriaren eskuetan, hau da, ekintza oro zehaztua duena. Adibidez, McDonaldsera sarzen den pertsona orok, berdin prestatua dagoen hanburgesa, edari edota postrea eska dezake munduko edozein lekutan.

Protokoloak esaterako, jarduera denak aurrez planifikatuak daude eta pentsatuta, honek muturreko arrazionalizaziora garamatzalarik, ezaugarri pertsonaletara egokitu gabe.

4. Automatizazio bidezko kontrola: McDonals sistemaren barruan, aurretik kontrola ezin daitekeen bakarra gizakia da, hala ere, ez dio lekuri uzten gizakiok eduki ditzakegun akatsei. Dena dago automatizatu akats horiek ekiditzeko. Irismen hori mundu osora zabaltzen ari da enpresa asko pertsonak makinengatik ordezkatzuz. Giza faktorea ordenagailuaren menpe egotea, robot bezala jokatzuz, alienazioa sortzeko arriskuarekin.

3. Egungo bi adibide aipatu:

Gaur egun McDonalizazioa mundu guztian ari da zabaltzen, sektore guztietako enpresek pausu berdinak jarraitzen dituzte. Horrekin batera, gure bizitzako aspektu askotan ere kate famatuaren pausuak jarraitzen ditugu. Gero eta pertsona gehiagok egiten dituzte bidaia antolatuak edota aurretik antolatutako museo bisitetara doaz.

Hezkuntzan ere badauka eragina, unibertsitateek kurtso masifikatuak egiten dituzte edo ikasleak haien historial akademikoaz baloratu, asko prestatutako azterketen ondoren. Zerrenda zenbaezina da.

Hezkuntzan alde aurretik antolatutako moduloak, temarioaren barruan sartzen ez den gai bat plantetazean alde batera utzi, ideia aniztasuna, imajinazioa saihestuz.

Moda industria azkarra, modan jartzen dena urtero jarraitu, arropa berria urtero, homogenitatea.

4. Zein da bere arriskua?

Erakunde formalak erabiltzen dituzten sistema arrazionalak gizabanakoen berezotasuna eta sormenaren ahalmena ezabatzen ari da.

Aurrez aipatutako lau ezaugarrietako bakoitza, giza sormenaren, independentziaren eta autonomiaren kontrolaren araberakoa da.

Ritzerren hitzeran, McDonaldseko janaria osasun eta ingurumenerako kaltegarria da, ikuspuntu zabalago batetik, Weberren kezka oihartzuna egiten du, esananez, McDonalizazioaren azken irrazionaltasunarekin pertsonak sistemaren gaineko kontrola galtzen dutela, azkenik sistema bera izanik kontrolatzen dituen.

Muturrezkoa arrazionalizazioa (jaurra de hiel) ematen bada gizarteko arlo guztietan, gainontzeko ezaugarri gizatiarrak (sormena, harreman subjektiboak, emozioak, komunikatzeko gaitasuna...) alde batera uzten dira. Arrazionala garrantzitsua da, baliabideak kudeatzen lagun dezakeelako, baina alde subjektiboarekin bereiztu gabe, irrazionalizazioa sortu gabe.

5. Nola ekidin bere arriskua?

Lehen aipatu bezala, sistema irrazional batean murgildu nahi ez badugu, ezinbestekoa da eraginkortasuna, automatizazio bidezko kontrola, uniformetasuna eta kalkulatzeko gaitasun basati hau modu batean edo bestean kontrolatzea edota honen aurka aritzea. Ritzerrek hainbat adibidez proposatzen ditu. Lehenengoa, egunerokotasunarekin ematen diren errutinek inapurtzea. Bestalde, estandarizazioaren edo alde aurretik ezarritako egituren aurka jokatzeko du. Esaterako irakurle optiko batek zuzendutako test azterketak ekidin edo lokalki estandarizatuak ez dauden jabetxeetan jatea.

1. Zer da estratifikazio soziala?

Soziologiak "gizarte estratifikazio" terminoa gizarteetan eta gizataldeen artean dagoen desberdintasunaren arabera egitura iraunkorrak deskribatzeko erabiltzen du, talde sozialen artean emandako desberdintasun soziala adierazten du.

Termino honen arabera, gizarte taldeak sailka daitezke lur-azaleko geruzak edo estratuak ordenatzen diren bezala.

Hierarkizazioa mailaka ematen da eta gizarteko behe eta goi mailaz, geruzez edo estratuez hitz egin ahalko dugu.

Sailkatzeko irizpide arruntenak, aberastasun, botere edo prestijioaren jabetzaren banaketa ezberdina, eta mailak bereiziko dira, halaber, adin, sexu, arraza edo erlijioaren arabera.

Maila bakoitzeko kideek bizitza aukera jakin batzuk izan ditzake, baita pentsatu, jardun eta sentitzeko modu berdin samarrak izateko joera ere, eta identitate eta kidesun komuna dute beren estratuko gainerako kideekin. Ezaugarri horiek bereizten dute estratu bakoitza gainerako estratuetatik.

Bost gizarte estratifikazio mota nagusi bereizi ohi dira, hau da, bost multzo nagusitan sailkatu ohi da gizarte estratuen arteko desberdintasuna historia ingurune eta kultura desberdinen arabera. Halatan, bost gizarte eredu nagusi bereizten dira:

- 1- Antzin Aroko gizartea,
- 2- Ekialdeko despotismoaren arabera gizartea,
- 3- kasta gizartea,
- 4- estamentu gizartea,
- 5- klase gizartea

Aberats eta pobreen arteko aldeak, pertsona langabeen pobrezia, emakumeek gizonen aldean jasan beharreko eragozpenak, langile familia bateko kideari klase ertainera heltzea zenbat kostatzen zaion...

Klase soziala:

Gizarte estratifikazioa talde sozialen artean emandako desberdintasun soziala da. Soziologiaren arabera, talde sozial guztiak modu hierarkiko batean antolatuta daude. Batzuk, pribilegioak dituztenak, goiko estratuan egongo dira, beste batzuk erdian eta beste batzuk behean. Sailkapen honen arabera izango dira talde sozial bakoitzak dituen eskubideak eta bizi aukerak. Hortaz, gizarte taldeak lur-azaleko geruzak edo estratuak ordenatzen diren bezala ordenatu daitezke. Hierarkizazioa mailaka ematen da eta gizarteko behe eta goi mailako estratuez hitz egin dezakegu. Hauek dira sailkatzeko irizpide arruntenak: tradizioaren arabera, irizpide erlijiosoaren arabera (India), ekonomiaren arabera, boterearen eta prestijioaren arabera...

Estratifikazio sozial mota bi non adierazten diren talde sozialen artean emandako ezberdintasun soziala:

Klase soziala:

Klase bat, merkatuan egoera berdina duten pertsonak osatzen dute. Errentan oinarritu daiteke klasea identifikatzeko irizpidea eta horren arabera aurki daiteke sailkapen hierarkiko bat, goi, erdi eta behe mailako klasea. Irizpide objektiboa, maila ekonomikoaren arabera hierarkizazioa.

Talde ekonomiko gisa definitu aberastasuna, errentak, soldak, etekinak, lanbide mota edo boterea banatzerakoan aintzat hartzen den desberdintasunaren arabera hierarkia edo ordena egitura: Klase sistema.

Estatua: Irizpide subjektiboa, prestijioaren arabera hierarkizazioa. Pertsonak duen kokapen sozialaren gainetik besteek egiten dituzten baloraketetan datza, eta aldi berean besteek egokitzen dioten prestigio edo estigma sozialean. Estatus egoera berdina dutenek, estatus talde bat osatzen dute eta talde horrek bizimodu bereziak erakusten dituzte beraien izaera partikularra azpimarratu nahian. (Adb: Artistak, etxegabekoak...)

Estatua: Pertsona batek gizartean duen maila edo posizioa.

Rola: Estatus jakin bat lortu duen pertsonagatik espero den jokabidea.

Estatua eskubide eta erantzunkizun saila da eta rola aldiz, erantzunkizun eta eskubide horien jardura. Kulturarena arauak rol eta estatusen ikaskuntza bidez ikasten dira.

Familia batzuk gero eta abantaila ekonomiko handiagoak eta beste batzuk gero eta desabantaila handiagoak.

Erdigune lodia "klase ertaina" eta mutur txikiak goi klasea eta behe klasea.

Gero eta handiagoak dira klaseen arteko bereizkuntzak.

Pobrezia eta gizarte bazterkeria.

Gizarte industrialean emandako estratifikazioaren bilakaeraren amaiera.

1. Bost gizarte estratifikazio mota nagusi bereiztu izan dira, hau da bost multzotan sailkatu da gizartean estratuen arteko ezberdintasuna ingurune historiko eta kulturalaren arabera.

Aintzinaroko gizartea

Ekialdeko despotsimoa

Kasta gizartea

Estamentu gizartea

Klase gizartea

Soziologiak gizarte estratifikazio terminoa erabiltzen du gizarte eta gozarte taldeen arten dauden ezberdintasunem arabera egitura iraunkorrek deskribatzeko. Hau da, talde sozialen arteko ezberdintasun sozialak adierazten ditu.



Termino honen arabera gizarte taldeak sailka daitezke lur azaleko gerzuka edo ta estartuak sailaktzen diren bezalaeta goi maila edota behe mailako estratuez hitz egin.

Hierarkizazioa mailaka ematen da, eta sailaktzeko irizpide arrunetnkaberatsununa, otere eta prestijjio banaketa ezberdinaren arabera da. Ondoren maila desberdinak bereitzen direnarik, sexu klase arraza edo erlijioaren arabera,

Maila bereko kideek bizitzeko antzeko aukerak dituzte eta sentitu, jokatu edota jarduteko moduak ere, kidetasun eta nortasun sentimentua daukate eta honek ebste estratuengatik ebrizten die.

Klase soziala: Klase bat, merkatuan egoera berdina duten pertsonak osatzen dute. Hau da errentan oinarritzen da klasea identifikatzeko irizpidea, eta horren arabera da sailkapen hierarkikoa, goi erdi eta behe mailako kalsea. Irizpide objektiboa, maila ekonomikoaren arabera hierarkizazio.

Estatusa: Irizpide subjektiboa, prestijioaren arabera hierarkizazioa. Pertsona batek gizartean duen kokapen sozialaren gaintik, besteek egiten dituzten baloraketetan datza,hau da besteek ezarritako estigma sozial edota prestigioan. Estatus egoera berbera dutenek, estatus talde bat osatzen dute eta huek bizimodu bereziak erakusten dituzte, izaere aptikularra azpimarratu nahian,